



URUMEA IKASTOLA, 50. urteurrena (1963-2013)

Urumea Ikastolak 50 urte bete ditu. 2013/14 ikasturteari hasiera eman zion 50. urteurrena iragarritz. Guraso talde baten ekimenez sortu zen, haien ausardiari esker, seme-alabak euskaraz hezteko helburuarekin; euskarazko irakaskuntza eta beste eskola eredu bat ziren une hartako ametsak. Garai hartan "Enseñanzas Urumea Oarso 2" izenarekin sortu zen. Mende erdiko ibilbidea ospatu beharreko zerbait da: tartean zailtasunak ez dira gutxi izan, baina urtez-urte egokitu eta aurrera egin du. Urte hauetan zehar jende askok lagundu du Ikastolaren proiektua eraikitzen eta sendotzen.

SORRERA ERA BILAKAERA

Urumea Ikastolaren sorrera hiru euskaltzale sutsuei esker izan zen: Juanito Goia, Iñaki Guruzeaga eta Joxe Larrañaga. Hauek lortu zuten benetako euskal mugimendua herri mailan. Lokalak erosteko akzionistak eta hilean ahal zena emateko sozio "protektore" ugari bilatu zituzten. Diru hau ikastolako gastuentzat erabiltzen zen. 1961ean eman ziren Urumea izango zenaren ikastola irekitzeko lehenengo urratsak.

Guraso haiek hutsetik hasi ziren; dena egiteko zegoen: lokalak aurkitu, ikasgelak txukundu, irakasleak lortu, familiak konbentzitu, dirua lortu, klandestinitatea gainditu, ikasmateria sortu... Herritik sortutako ekimena izan zen, herriarentzat; euskara eta euskal kultura berreskuratzeko eta zabaltzeko; eskola aurrerakoia eta kalitatezkoa.

Sortzaileen hitzetan:

"1962an hasi ginen euskara lantzen eta klaseak ematen. Oarso 3an erositako lokalak prestatu arte lokal probisionaletan aritu ginen. Gaueko seitatik zortzietara bost, sei eta zazpi urteko 70 umerekin hasi ziren klaseak 'luistarren2' lokaletan. Ideia, ezagutzera ematea eta hurrengo urterako umeak lortzea zen. Oarso 3ra urtebete beranduago pasa ginen, 86 neska-mutiko genituen, 4, 5, 6 eta 7 urtekoak. Hurrengo urteetan gehitzen joan ziren ikasle, irakasle eta gelak. 1977/78 ikasturtean 872 ikasle eta 30 irakasle genituen. Gure S.A. bezala hasi zen. Lege aurrean euskarazko izena ezin jarri eta gazteleraz 'Enseñan-

zas Urumea S.A.' izan zen. Sozietate Anonimoa 51 akzionistek osatzen zuten. Gero Batzordea zegoen, gutxienez astean behin biltzen zen. Urte zail haietan Javier Valle de Lersundi izan genuen lehendakari eta idazkaria Iñaki Guruzeaga. Batzordea beti zen gertu, laguntzeko prest. Hauetaz gain Joxe Laburu, Joxe Elizegi, Jose Luis Zubillaga, Rafael Esnaola... Benetan eskertu beharrean gaude orduko gurasoek gudan konfiantza izateagatik".

Urumea izena jartzearen zergatia. Hiru sortzaileak Lizeo Santo Tomaseko gurasoekin biltzen ziren hauek Urumea ibai bazterrean zituzten bizpahiru lokaletan. Honen batera Urumea ibaia ere Hernanitik pasatzen den horretan eta herriarekin duen loturarekin... Urumea izena jartzea erabaki zen.

Elbira Zipitria udaran Erasunera joaten omen zen oporrak pasatzera eta bertan Maritxu ezagutu zuen. Aranaldek eta Elbirak hiru sortzaileei esan zieten Maritxuren bila joateko 61ean. Maritxuk urtebete egin zuen Elbirarekin praktiketan.

Ikastolak debekatuta zeuden; klandestinitatean aritu ziren lanean: gela guztiak ez zeuden legalizatuak.

Hasiera hartan ikastolen artean harreman handia zegoen, elkarri lagundu eta erakusten. Larunbat arratsaldero biltzen ziren Seminarioan, Azpeitikoekin, Lizeokoekin... Ikasleen kopurua etengabe handitzen zihoan eta ezin bestekoa zen guraso eta akziodunen laguntza.



LOKALAK

- Oarsoko lokala 1960/61ean erosi zen.
- 1963an inauguratu zen lokala eta 1963/64 ikasturtean hasi ziren klaseak bertan.
- 1966/67an legalizatu zen.
- Beste bi gela egin ziren Oarsoko goiko pisuan.
- 1967/68an Oarso 2an beste lokal bat hartu zen.
- 1968/69an bi lokal Elkano 17an.
- 1971/72an garai hartako Institutuko gela bat.
- 1972/73an institutuko beste gela bat.
- 1972/73an Atsegindegin bi gela.
- 1974/75ean sei gela Lizeagan (Atsegindegikoak utzita).
- 1975/76an Benefizentziako bajo bat alokatu zen.
- 1976/77an institutuko gela bat gehiago lortu zen.
- 1989an 2 urteko lehenengo gela zabaldu zen. Gela honen kokapena berriz ere hasierako lokaletan izan zen, Oarson zegoena, egokitzapenak egin ondoren. Gela honen sorrera ere gurasoen ekimena izan zen.

HEZKUNTZA PROIEKTUA.

Ikaslearen garapen integrala helburutzat jotzen zen. Horretarako gurasoak eta irakasleak haurren heziketan parte-hartzaileak ziren eta familia eta irakasleen arteko harremana estua bihurtu zen. Hezkuntza komunitateak esanahi handia zuen.

Metodologia aktiboko printzipioetan oinarrituz ikaslearen parte-hartzea sustatzen zen, manipulaziotik eta esperientzietatik abiatuz eta ingurunearen behaketa zuzenak eginez. Material gabezia kontuan hartuta euskarazko materiala eta testuak behar ziren;

mota guztietako materiala bilatzen zuten, ikasleek etxetik ekartzen zituztenak ere. Andereñoek aukera berritzaileak asmatu zituzten. Euskarazko testuak oso urriak zirenez, beraiek sortu behar zituzten edota zeudenak euskaratu. Dena euskara hutsean ematen zen. Hasieran euskalkiak eta beranduago euskara batua.

Oso lan garrantzitsua egin zuten ildo metodologiko berritzaileak sortuz eta euskara zabalduz.



PUBLIFIKAZIOA.

Ikastola sortu zenetik legalizatu zen arte urte gutxi pasa ziren baina bitarte horretan ez zuen baimen ofizialik. Ikasleek egindako ikasketan agirietan agertu ahal izateko laguntza eskatzen zen. Honela, ikastolako neska-mutileen ikasketak zertifikatzen zituzten eta "cartilla escolar"-etan jasota geratzen zen.

1969an Gipuzkoako Ikastolen Elkarte sortu zen ikastolen arazoei aurre egiteko: klandestinitatetik atera eta legalizatzea, finantziarazioa lortzea...

Urumea Ikastola 1994ean publikatu zen: Euskal Eskola Publikoaren sarean integratu zen eta honen ondorioetako bat Gay Mur eraikinean kokatzea izan zen.





EUSKARA, EUSKAL KULTURA, JAIALDIAK.

1969an hasitzen Galarretako jaialdia ospatzen (69ko maiatzaren 6an, hain zuzen ere). Helburua euskal kultura, folklorea, ohiturak... zabaltzea eta familia eta lagun giroan ospatzea. Euskaltzale asko hurbiltzen zen; Bilbotik ere bizpahiru autobus etortzen ziren gazte jendearekin. Jende askok hartzen zuen parte baita Euskal Kulturen garrantzi handia zutenek ere: Benito Lertxundi (ikastolara bertaratzeko klaseak ematera), Joxean Lizarribar (ikastolan dantza irakasten zuen), Jose Mari Gabiria (bertsolaritza lantzen zuen ikastolan), Xabier Lete, Lourdes Iriondo... eta hainbat eta hainbat.

Inude eta Artzainak lehen aldiz 93an egin zen Galarretan eta 94ean Hernaniko kaleetan zehar. Euskal folkloreakin zerikusia zuen guztia ahalegintzen ziren ikastolara ekartzen, bertsolaritza, dantza... Ideia guztiak ongi etorriak ziren. Dantzariekin harreman handia zegoen eta testuinguru honetan erabaki zen Inudeak ere antolatzea. 1994 - 2010 urte bitarte Urumea Ikastolako DBHkoek antolatu zuten eta, 2011. urtez geroztik, Hernaniko DBHko bateratzearen ostean eta tradizioa mantendu nahian, Urumea Ikastolak hartu du bere gain antolaketa (Haur eta Lehen Hezkuntzako ikasleekin). Egun 250 inguru pertsonak hartzen du parte konpartsa honetan.

50. URTEURRENAREN OSPAKIZUNAK.

2013/14 ikasturteari Urumea Ikastolak hasiera eman zion 50. urteurrena iragarritz. Mende erdiko ibilbidea ospatu beharreko zerbait da eta ikasturtean zehar izaera desberdineko ekintzak antolatu ziren. Beraz, ospakizun urtea izan da!

Santomasetan eta Gabonetan Guraso Elkarteen laguntzaz ekimen bereziak antolatu ziren.



Inude eta Artzainetan Urumea Ikastolaren 50. urteurrena dela eta, ekitaldiari amaiera berezia eman zaio. Urumea Txarangarekin batera Hernaniko Musika Bandaren partaidetza berezia izan da ekitaldi nagusian Gudarien plazan.



Aurtengoa 21. aldia izango da Urumea Ikastolak konpartsa antolatzen duela. Urteen poderioz bere arrakasta herriko mugak gaindituz, beste herrietako ikusle eta parte-hartzaileak erakartzen ditu.

Honekin batera urteetan Inude eta Artzainak iragarri duten kartelen erakusketa antolatu da.

Ikastolaren eguneko jaialdia maiatzeko azken igandean ospatzen da eta aurtengoari ere esanahi berezi bat eman nahi izan zaio: urteetan zehar egindako jaialdietatik emanaldi adierazgarrienak aukeratu dira familiei berriz ere eskaintzeko. Ikastolako ikasleek beraiek egindako bertsoak abestuko zituzten jaialdian zehar. Bertso hauen bidez ikastolaren bilakaera adierazteaz gain, sortzaileei ere eskerrak eman nahi izan dizkiete egindako lanaga-



tik. Jaialdiari amaiera emateko ikasle, irakasle eta familia guztien artean Olatz Zugastiren "Bizirik gaudelako" kanta abestu zen bereziki ikastola sortu zutenei eskerrak emanez. Azpimarratzekoa da urteetan zehar bildutako argazkien proiektzioak izandako arrakasta.

San Joan jaietako iragarpen kontzertuan (Preludio txikian nahiz nagusian) aipamen berezia egin zitzaion ere ikastolako urteurrenari.

Ospakizunei eta ikasturteari amaiera emateko Hernaniko Musika Bandak, San Joan eguneko kontzertuan, emanaldi berezia eskaini zuen: Urumea Ikastolari bereziki sortutako biribilketa estreinatu zuen herri osoaren aurrean "Urumea Ikastola" izenekoa.

Estreinaldirako, Musika Bandako musikariaz gain, konpositore, bertsolari, kantarien... partaidetza izan zen. Honekin batera ikastolako ikasle batzuk ere hartu zuten parte: dantzariak, danborreroak eta abesbatza. Biribilketa hau Jose M^a Oiarzabal konpositoreak sortu du eta Jose Luis Urdangarin bertsolariak (ikasle ohiak) hizkia jarri dio. Aina Ortega abeslariak (ikasle ohiak) abestu zuen.

Modu honetan omendu egin nahi izan dituzte ikastolako irakasle, ikasle eta guraso izandakoak eta direnak, ikastolaren sorreran lagundu zutenak eta, nolabait, ikastolari lotuta dauden guztiak. Urumea Ikastolaren izpiritua jasotzen da kantuan: bere momentuan eta Hernanin izandako papera eta bete zuen hutsunea. Eta era berean etorkizunari keinu bat egin nahi izan zaio.

Aipatu biribilketa hemendik aurrera urtero Inude eta Artzainen ospakizunean antzetzeko asmoa dute ekitaldi nagusian.

"ITURRI ZAHARREKO UR BERRIAK".

Sortzaileek egin zutena gorestekoa izan zen. Garai hartako egoera kontuan hartuta eraldaketa handia suposatu zuen eta jende askok hartu zuen parte, hala nola, familia, irakasle, herritar... Ardurak askotarikoak izan ziren eta bakoitzak ahal zuen neurrian erantzuten zuen. Bereziki azpimarragarria izan da andereñoen eta maisu-maistren konpromisoa, partaidetza eta Ikastolaren proiektuarekiko atxikimendua: instalazioen baldintza kaxkarrak, ga-





(Hernaniko KRONIKA).

beziak, lan baldintzak... Oztopoak gaintitu eta gure herriko hizkuntzaren alde ilusioz lan egitea!

Egun ere, guztiok erronkak eta konpromisoak betetzen jarraitzen dugu. 50 urte hauetan garaiak eta baliabideak aldatu eta hobetu egin dira baina xedea ilusioz mantenduz jarraitzen dugu. Gizartea aldatu egin da baita hezkuntza sistema ere, eta horrek aldaketak ekarri ditu eskoletako xede eta helburuetara ere. Bizitzeko behar diren oinarritzko kompetentziak eta gaitasunak garatzea izango da helburu nagusia betiere hasierakoei eutsiz, hau da, euskara eta euskal kulturaren baitan heztea, hezkuntza egokia eskainiz.



Mende Erdiko ibilbidea hasi zutenei jarraiki kalitatezko hezkuntza eskaintzen dihardugu, gizartearen eskaerari erantzunez, euskal kultura eta euskararen erabilera sustatuz; familiekin elkarlanean, ikasleak osotasunean heztea, ikasleak dimentsio guztietan eraginkortasunez jarduteko trebatzea dugu helburu: ikasleak bizitzarako presta daitezen, gizarte batean bizitzeak eragingo diz-

kien gaiei erantzuten jakingo duten hiritar gisa aritzeko kompetentziak eskuratuz. Ikastetxe euskalduna eta elea-nitza, parte-hartzailea, anitza eta hezkidetzazkoa, etengabeko prestakuntzan diharduna, kultur aniztasunaren eta teknologia berrien gizarteari erantzuna emateko.

500 ikasle inguru hezten ditu urtero hiru eraikinetan banatuta. Euskara da harremanetarako hizkuntza nagusia; horrez gain, gaztelera, ingelesa eta frantsesa. Eskola euskalduna eta elea-nitza da beraz.

Teknologia berrietan oinarrituta lan egiten dute ikasleek eta zentzu honetan ahalegin berezia egin du Ikastolak ordenagailu bidezko irakaskuntza bideratzen, ordenagailuz hornituz eta Lehen Hezkuntza osoa arbela digitalizazioz hornituz (berriz ere gurasoen laguntzarekin).

Hau dela eta, etorkizunari begira, etengabeko eguneratzeari, ikastolako zerbitzuak hobetzeari eta hezkuntza komunitate guztiaren partaidetza bultzatzeari ekingo diogu, partaide guztien arteko errespetua bermatuz.

Duela 50 urte guraso talde batek euren seme-alabek euskaraz ikasteko aukeraren apustua egin zuten. Urumea Ikastolaren hezkuntza ibilbidean gizon eta emakume askoren amets, ilusio eta lanak daude. Zenbat lan, zenbat ahalegin, zenbat ikasle, irakasle eta familia!

Mila esker gure hezkuntza ibilbidean parte hartu duen guztioi!